

**"Taldean dugun giro onari eusteak puntuak emango dizkigula eta diferentzia markatu dezakeela uste dut"**



Bigarren Mailari eusteko erronka gauzatzeko, Amorebieta futbol klubak hainbat fitxaketa egin du udan, baina, dudarik barik, Mikel San Jose nafarrarena izan da denetan sonatuena. Athletic taldeko jokalaririk ez du izar zigilurik gura, eta bat gehiago dela eta bere aletxoak ipintzera etorri dela dio. Oraingoz, erronka berriaren zentratuta bizi da eta ilusioari eusten dion bitartean ez du futbola uzteko asmorik. • 2-3



**Gaur eta bihar, gaez, Elorriorako sarrerak itxita egongo dira**

**Elorrio** | Elorrioren bizilekua duten pertsonen eta sartu beharra egiaztatzen dutenek baino ezingo dute herrian sartu. • 8

**'Jantzari' Filmin plataforman ikusgai gaurtik aurrera**

**Iurreta** | Iurretako dantzariak, Bideografik ekoiztetxeak eta ANBOTOk elkarlanean landutako dokumentala Filmin plataforman ikusi daiteke gaurtik aurrera. Ikusentzunezkoa Euskal Herriko 27 aretotan proiektatu dute dagoeneko, eta orain beste agertoki bat izango du. • 19

**Tor des Geants proban berea den errekorra hobetu gura du Triguerosek**

**Mendi lasterketa** | 85 ordu, 23 minutu eta 15 segundo. Horixe da emakumeetan Tor des Geants proba mitikoko errekorra, eta Silvia Triguerosek ezarri zuen 2019an. Aurtengo aldirian denbora hori hobetzeko aukera ikusten du korrikalari abadiñarrak. Domekan hasiko du 350 kilometro dituen lasterketa gogorra, 10:00etan, eta ondo bidean eguazten iluntze-gauean heldu behar luke helmugara. Uztailean eta abuztuan prestaketa moduan erabilitako lasterketa bana irabazita, sasoiaren dago Trigueros. • 20





**Mikel San Jose Dominguez**

Amorebieta futbol klubeko erdilaria

ATARRABIA | 1989

## “Ilusioa agortu arte jarraituko dut futbolean; hankek erantzungo dute ilusioari eusten diodan bitartean”

Amorebieta klubeko fitxaketa 'izarra' da Mikel San Jose. Berak bat gehiago baino ez dela dio, horrela aurkeztu duela bere burua eta taldekideek horrela egin diotela ongetorria

**FUTBOLA** • JOSEBA DERTEANO

Taldera ondo egokitu dela dio eta aldageletako giro ona azpimarratu du Bigarren Mailari eusteko gako modura. Amorebietagaz aurrean duen erronka berrian zentratuta du burua eta ez du etorkizunari buruz gehiegi pentsatzen. Ilusioari eusten dion bitartean futbolean jarraituko duela dio, eta gero gerokoak.

Gerriko uzkurdua bat izan duzu oraintsu. Errekeratuta?

Gutxi gorabehera bai. Gaztetatik arazo batzuk izan ditut gerrian, eta oraindik arazoak ematen dizkit noizean behin. Baina, tira, bai, errekeratuta nago.

**Eta zelan zaude fisikoki?**

Oso ondo. Fisikoki zein mentalki. Lehenengo egunetik bertatik.

**Azken partidu bietan garaipen bat eta berdinketa bat. Taldearen konfiantzarako ondo datozen emaitzak.**

Bai, noski. Lehenengo partidu biak galduta animoa ez zen jaitsi, baina

irabazteko behar hori sortu zitekeen... Beraz, azken jardunaldi bietako emaitzak oso ondo etorri zaizkigu animorako. Nik hasieratik esan dut denboraldi hau oso luzea egingo dela eta bidean momentu onak eta txarrak izango ditugula. Normala da.

**Bigarren Mailari eusteko gakoa non dago?**

Aldageletan dugun giro onari eustea da gakoetariko bat. Iaztik jarraitzen dutenen eta aurten batu garen artean talde batua osatu dugu. Horrek puntuak emango dizkigula eta diferentzia markatu dezakeela uste dut.

**Zelan hartu du aldagelak jokalaria ilustre baten ailegiera?**

Ederto. Bat gehiago lez hartu naute, izan behar den moduan. Denok futboleant gabilta txiki-txikitatik eta maite dugun kirola da. Berdinak gara. Ni beste bat gehiago naiz euren artean, horrela sentiarazi naute lehenengo egunetik eta neuk ere horrelaxe aurkeztu nuen neure burua. Nire nahia taldeari laguntzea da; posible den neurrian, zelai barruan, eta ezin bada, aulkian edo harmailetan. Denok ipini behar dugu gure aletxo mailari eusteko

erronka errealtate bihurtzeko.

**Euskal jokalariz osaturiko taldea da Amorebieta. Filosofia horrek izan du eraginik zu Amorebietara etortzeagaz?**

Ez gehiegirik. Banekien zelako taldea zen, baina jokalaria guztiak euskaldunak izatea polita da. Amorebieta eta Athletic taldeekin demostratzen da futbol profesionalean berdin-berdin lehiakor izan daitekeela bertako jokalariekin.

**Aldageletan dugun giro onari eustea da gakoetariko bat. Horrek puntuak emango dizkigula eta diferentzia markatu dezakeela uste dut**

**Denbora laburrean izan bazen ere, Iñigo Velez da Mendizabal entrenatzailea zure taldekide izan zen, ezta?**

Iñigo eta biok egun batean edo bitan baino ez ginen izan taldekide, eta orain urte mordoan izan zen. Beraz, oraintxe ari gara elkar eza-

gutzen, eta ez zait arraroa egiten. Oso gustura nago berarekin.

**Amorebietagaz Lezaman lehenengoz jokatu zenuenean arraroa izan zen zuri-gorria ez den beste kamiseta bat janztea?**

Lezaman urdina janztea ez da ohikoena (barrez). Jokalariontzat, klubarentzat eta zaleentzat Urritxen jokatzeko zen onena, baina Lezamarara joatea egokitu da. Azkenean, kamiseta bat edo bestea janztea baino gehiago, nik jokatuako lehenengo partidua irabazi izana izan zen bereziena niretzat.

**Zenbat futbol geratzen zaio Mikel San Joseri hanketan? Eta buruan?**

Hanketan baino gehiago, buruan geratzen denari erreparatu diot. Jokalaria batek mantendu behar duena ilusioa da eta hori agortu arte jarraituko dut futbolean. Egutero ohetik jaiki, zeure buruari "entrenatzera noa" esan eta gustura sentitzea da behinena. Hankek berea emango dute ilusioari eusten diodan bitartean.

**Athleticen jokaturiko hamarkadan, Durangaldeko jokalaria askoz partekatu zenuen aldagela: Xabi Etxeitagaz, Ander Iturraspegaz, Eneko Bovedagaz, Fernando Amorebieta-**

**gaz, Ustaritz Aldekoa-Otalaragaz eta gehiagoz. Hartu-emanik mantentzen duzu baten bategaz?**

Gehienbat Iturrasparekin. Bove-darekin zertxobait bai, Etxeitarekin ere bai... Azkenean urte asko eman genituen elkarrekin. Ez gara egunero egoten, bakoitzak bere bidea egin du, baina harreman hori mantentzen da eta aurten, gainera, ni hemen egonda gehiago ikustea espero dut.

**Athletic eta Amorebieta taldeekin erakusten da futbol profesionalan berdin-berdin izan daitekeela lehiakor bertako jokalariekin**

**Birminghamera joan zinen, zure ibilbidearen hasieran Liverpoolen bizitako sentsazio eta bizipenak errepikatu guran, baina COVIDak dena hondatu zizun.**

Bai niri eta bai familiari. Nire azken kontratua izateko esperantzarekin joan nintzen hara. Hiru-lau urte han ematera. Ez nuen ume txiki birekin toki batetik bestera mugitzen ibili nahi. Gustura egongo nintzen toki bat bilatu eta han geratu nahi nuen. Eta horixe aurkitu nuen Birminghamen. Gainera, Aitor Karanka zen entrenatzailea eta taldeko giroa oso ona zen. Ingelesarekin ondo moldatzen nintzen, urte asko lehenago ikasitakoa berreskuratuz. Umeak ere pozik zebiltzan eskolan. Baina birusak dena aldatu zuen. Denbora luzez, etxetik kanpora ez genuen bizitzarik eduki eta umeek eskola utzi behar izan zuten. Esperientzia berri bat horrela bizitzea ez da eroso eta gustukoa. Beraz, itzultzea erabaki genuen.

**Ingalaterrako Bigarren Maila ala Espainiakoa, zein da indartsuagoa?**

Oso desberdinak dira. Ingalaterrakoa oso fisikoa eta zuzena da. Ez dago geldialdirik. Espainiakoa etenaldi luzeagoak daude eta teknikoagoa da. Lehenengo mailekin berdin gertatzen da.

**Jokalari asko herrialde exotikoe-tara joaten da euren ibilbidearen azkenean, dirua dagoen tokira. Zuk bilatu duzu horrelakorik?**

Nire ibilbidean mugitu izan nauen arrazoia toki batean gustura egotea eta eroso sentitzea da, besterik ez. Birminghamera arrazoi horregatik joan nintzen. Ez dut sekula bilatu urrun edo herrialde exotiko batera joatea dirua egitera. Lehenengo eta behin familia dago, eurak ondo sentitzea inportantea da niretzat.

**Futbol ibilbidea amaitzean, futbol munduari modu batera edo bestera lotuta jarraitzea gustatuko litzazuke?**



Ez dakit. Egia esanda, oraindik ez dut horretan pentsatu. Mundu guztiak esaten dit horretan pentsatzen hasi behar dudala, baina

**Nire ibilbidean mugitu izan nauen arrazoia toki batean gustura egotea da. Ez dut sekula bilatu herrialde exotiko batera joatea dirua egitera**

ikusiko dugu. Dakidana da umetik baloiarekin nabilela eta futbola gustatzen zaidala. Modu batera edo bestera, futbolari lotuta egongo naiz, seguru.

**Futbolari batzuek diote adinean aurrera joan ahala futbola modu analitikoan aztertzeke joera handitzen zaiela. Zuri berdina gertatzen zaizu?**

Egia da orain zelaitik kanpora nagoenean 20 urterekin ikusten ez nituen gauza asko ikusten ditudala. Prozesu bat da. Hala ere, sistemak, metodoak, jokamoldeak... futbola eremu zabala da eta asko dago ikasteko.

**Udan Olinpiar Jokoak izan dira, Eurokopa ere bai. Inoiz ikusiko ote dugu euskal selekzioa euretariko batean lehiatzen?**

Baietz espero dut. Nik uste dut dena dela posible. Beraz, zergatik ez euskal selekzioa Eurokopa batean lehiari ikustea? Nik esperantzari eusten diot.

**Sare sozialetan zure usteak eta iritzia garbi adierazten dituen horietarikoa zara. Zer poz eta zer disgustu ekarri dizkizu fazeta horrek?**

Nire sare sozialak sortu nitueanean, jendeak Mikel San Jose jokalaria eta pertsona ezagutu zitzaizkidan sortu nituen. Jokalari bat pertsona modura zelakoa den ezagutzeak jende asko pozten duela esango nuke, eta horixe zen nire helburua. Alde horretatik, positiboa izan da. Hortik aurrera, nik jartzen dudana edo pentsatzen dudana batzuei gustatuko zaie eta beste batzuei ez, batzuek errespetatuko dute eta beste batzuek ez, baina hori mundu guztiari gertatzen zaio sare sozialetan. Ez dit lorik kentzen.

## Labur-labur

**Futbola ez den gustuko kirol bat?**

Pilota.

**Pilotari bat?**

Juan Martinez de Irujo.

**Umetan zein futbolari gustatzen zitzaizun?**

Ume-umetan ez nuen futbolari kutun bat. Apur bat nagusitu nintzenean, Carlos Gurpegi.

**Futbolari zarela gehien harritu zaituen taldekidea?**

Fran Yeste, zuen kalitateagatik. Urtebete baino ez nuen eman berarekin, baina Athleticen aurkitu dudan jokalaririk ezberdina eta bereziena da.

**Eta aurkari moduan?**

Messi esatea da errezena, baina Iniesta esango dut. Txikia izanagatik azkarra, kalitate handikoa...

**Zure ibilbidean garrantzitsua izan den entrenatzaile bat?**

Asko daude, baina bereziena Ernesto Valverde.

**Sareetan askotan idazten duzu El Conquistador telebista saioari buruz. Erretiratzen zarenean parte hartzeko eskaintzen badizute...**

Pentsatuko nuke. Gustatuko litzaidake, baina ikusi egin behar gerria eta bizkarra zelari ditudan (barreak).

**Zein izan da Spotifyn entzun duzun azken abestia?**

'Katedral bat' [Berri Txarrak]. Kotxean horixe entzuten heldu naiz gaur entrenamendura.

**Erosi diezu zure umeei**

**Amorebietaren kamiseta?**

Athleticekoa eta Birminghamekoa badituzte eta Amorebietarena laster izango dute, klubeko dendara heltzen denean.

**San Mames ala Anfield?**

San Mames, euskalduna naizelako eta han jokatzeko nire ametsa zelako. Hori bai, gomendio bat futbolzaleentzat: Anfield-en egon beharra dago, bizitzan behin baino ez bada ere.



Gazteak izan dira castingean izena eman duten durangarrik gehienak.



Udal euskaltegian egin dute desfileko castinga.

## 31 herritarrek arropa eta osagarri denden denboraldi berria aurkeztuko dute Durango Fashion Gauean

Dendak Bai elkarteak desfile herritarra antolatu du irailaren 24rako, Andra Marian. Durangarrek modelo lanak egiten dituzte bertan, herriko arropa saltokien produkturik berrienak erakutsita. Guztira, 15 denda baino gehiagoren produktuak ikusi ahalko dira

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Dendak Bai eta Durangoko arropa saltokiak motorrak berotzen dabilta etortzekoa den Durango Fashion Gauari begira. Iaz egini-ko etenaren ostean, desfilearen bosgarren edizioa antolatuko dute aurten. Hilaren 24n egingo da, Andra Marian, eta Durangoko denden denboraldi berriko produktuak aurkeztuko dituzte bertan. "Arro-

pa dendak dira gehienak, baina oinetako eta osagarri denden produktuak ere izango ditugu. Guztiek udazken-negurako proposamenak aurkeztuko dizkigute", azaldu du Miren Garrastazu Dendak Bai elkarte-ko merkataritza teknikariak. Hamabost dendak baino gehiagok parte hartuko dute.

Astelehen honetan, desfilean parte hartuko duten herritarren

castinga egin dute udal euskaltegian. 31 herritarrek eman dute izena. Tartean, Iurretan bizi den Juan Antonio Lejardik. "Orain urte bi parte hartu nuen eta gustatu zitzaidan esperientzia. Aurreko astean irakurri nuen berriro ere desfilea antolatuko duten albisteak, eta parte hartzea erabaki nuen. Gutxi dira bertan parte hartzen duten gizonezko adinduek", dio.

Horrez gainera, horrelakoetan parte hartzea animatu ditu gainerako herritarrek: "Esperientzia polita da. Jendeari etortzeko gomendatuko nioke. Probatu dezala, zerbait diferentea da eta", azaldu du Lejardik.

Aurtengo edizioan, adin muga ipini dute. 18 urte eduki behar dira gutxienez. Gazteak dira izena eman duten herritarrik gehienak, baina badira 50 urtetik gorakoak ere. "Aurreikuspenen arabera, castingean izena eman duten kide guztiak hartuko ditugu desfileko", dio Ana Pérezek. Pérez Txamuskina

enpresako kidea da. Ekitaldien antolaketan eta kudeaketan lan egiten du, eta beste urte batzuetako esperientzia errepikatuta, bera dabil, Marta Barbara lankideagaz batera, Durango Fashion Gaua izango dena antolatzen. "Denda bakoitzak bere estiloa duenez, denek balio digute, gazte zein heldu," zehaztu du. "Izena eman duten kide guztiekin WhatsApp talde bat osatuko dugu. Elkarrengaz antolatuko gara. Datorren astelehenean, adibidez, hilaren 14an, entseguak hasiko ditugu. Aurreko edizioetan primeran pasatu genuen. Familia handi bat sortzen da eta partaideek dioskue asko ikasten dutela", esan du Ana Pérezek.

Behin betiko emaitza ikusteko, irailaren 24an Andra Mariko elizpera jo beharko da, iluntzean.

## Antso Estegiz kalearen berrurbanizazioari eta trenbide zaharraren orubeari buruzko prozesu parte hartzaile bana egingo dute Durangon

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko gobernu taldeak ikasurte politiko berria aurkeztu du asteon, eta Antso Estegiz kalea berrurbanizatzea eta Trenbide zaharraren orubeari lanke- tagaz jarraitzea dira hemendik aurrerako erronketariko batzuk. Lehenengoaren kasuan, udalak prozesu parte hartzaile bat egingo du bizilagunekin. Julián Ríos alkateordeak esan du kale horretako auzotarrek dute "zor his-

torikoa" kitatuko dutela horrela. PERI 1 Trenbidea delakoari buruz ere, beste horrenbeste. Udalak prozesu parte hartzaile bat hasiko du orubeari geroaz jarduteko. Ima Garrastatxu alkateak ez du data zehatzik argitu, baina aurreratuko du prozesua "udazkenean" ipiniko dela martxan. Udalaren beste erronketariko bat Plateruenagaz zer gertatuko den argitzea izango da. Garrastatxuk aurreratuko du irailean emango

dituztela xehetasun gehiago. Oraingoan, Emun aholkularitza etxearen eta udaleko bulego teknikoaren txostenak dituzte esku artean. Honako hauek dira udalaren beste erronketariko batzuk: Ezkurdiko frontoia birmoldatzea, skate parkeak egitea, Eguzkitzaren industrializazioa garatzea, Merkatu Plazako proiektua garatzea, Andra Mariko elizpea birmoldatzea eta Tabirako igerilekuak birmoldatzea.



Julián Ríosek eta Ima Garrastatxuk astelehenean egin zuten agerraldia, Kuruzesantun.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2021eko irailaren 10a  
19. urtea - 861. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Durangoko EAJk kale zurrutari aurre egiteko neurriak hartzea eskatu dio gobernu taldeari

Asteburuetakoz zarata eta zikinkeria direla-eta, Alde Zaharreko hainbat bizilagun kexatu egin da. EH Bilduk esan du "alde guztiekin batu eta irtenbide adostu bat bilatzeko lanean" dabilela, "guztien beharrez kontuan hartuta"

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangoko EAJk kale zurrutaren aferan esku hartzeko eta "erantzukizunak bere gain hartzeko" deia egin dio gobernu taldeari. Kontua da azken asteburuetan kale zurrutaren lorrinez beterik esnatu direla Alde Zaharreko inguru batzuk, eta hainbat bizilagun zaratengaitik eta zikinkeria gaitik kexatu direla. Jeltzaleek uste dute horrelako jarrerak "geldiarazi" egin behar direla, eta horiei konponbidea emateko formula lez ipini dituzte "udaltzainen presentzia handitzea, ordutegiaren kontrola zehaztea eta kaleen garbitasuna indartzea". Durangoko EAJk jakinarazi du mozio bat erregistratu duela udaletxean, gaia eztabaidatzeko. Beraz, zinegotziek hilaren amaieran egitekoa den osoko bilkuran eztabaidatuko dute gaia.

Bestalde, EH Bilduk gaiari loturiko adierazpena kaleratu du sare sozialetan. Jasotzen ari diren kexen jakitun, koalizio subiranistak aurreratu du "alde guztiekin batu

eta irtenbide adostu bat bilatzeko lanean" dabilela, "guztien beharrez kontuan hartuta". Konponbide hori ailegatu bitartean, auzokideekiko eta inguruarekiko errespetuz jokatzera deitu du EH

Bilduk. Dena dela, udal gobernu taldeak hainbat esku hartze egin du egunotan: garbiketa brigadako beharginek kale zurrutak eragindako hainbat hondakin atera du Mañaria errekaaren ibilgutik Santa

Ana parean. Ezkurdiko Fray Juan Zumarragaren eskulturagaz ere, berdin. Orain egun batzuk eskulturari eginiko pintaketak garbitu dituela jakinarazi du Durangoko Udalak.



Zikinkeria arrastoak Santa Ana ondoko errekan.



## Iurretako Kofradiek ez dute Laixiar Eguna ospatuko, bigarren urtez

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Iurretako kofradiek urteroko hitzordua izaten dute iraileko bigarren domekan, Laixiar zelaietan. Herriko sei kofradietako ordezkariak —San Marko, Fauste, Goiuri, Santa Maña, Iurreta eta Orozketa— Batzar Nagusia egiten dute urteko kontuak azaltzeko. Eta, ondoren, jai giroan ospatzen dute euren eguna: Laixiar Eguna. Iaz lez, aurten ere, egun horretarako ekitaldiak bertan behera uztea erabaki dute kofradiek. "Batzar orokorra baino ez egitea pentsatu dugu, osasun egoerari egokitzuz. Hala ere, azkenean dena bertan behera uztea erabaki dugu", azaldu dute kofradiek.

## Aritz Ganboa artzain eta mendi korrikalariaren 'Bideak' dokumentala eskainiko dute Garain

Filmak Ganboa de Miguelek 2019an eginiko erronka jasotzen du. Gazta bat eraman zuen Sakanatik Erronkaribarrera, bidea etapa bakarrean eginda. Hilaren 19an emango dute

**GARAI • EKAITZ HERRERA**

Datorren domekan, Bideak dokumentala eskainiko dute Garain, Aritz Ganboa de Miguel artzain eta mendi kirolari nafarraren erronka jasotzen duen pelikula. Ganboa de Miguelek mendi ibilbide bat egin zuen 2019ko urrian, jaioterri duen Arruazu herria (Sakana) eta Izaba (Erronkaribarra) lotuta. Arruazutik hasita, Idiazabal jatorri-deitura duen gazta bat eraman zuen mendian

zehar, korrika, Izabaraino, Pirinioak etapa bakar batean zeharkatuta. Handik, Erronkariko jatorri-izena duen gazta ekarri zuen bueltan etxera. Ganboa de Miguelen berbetan, dokumentalak "landa eremu bizi baten beharri buruz" jarduten du, azken urteotan gertatzen ari den "hustuketaz" gogoeta eginda. "Hustutze horren arazoetariko bat despoblazioa da. Hori oso garbia da Nafarroako Pirinioetan. Baina,

bestetik, landa-kulturaren hustutzea ere badago. Herriak hiritartzen ari dira eta gure baliabideak, gure ezagutzak galtzen ari dira", azaldu du Ganboa de Miguelek.

Dokumentala Elizaberrin emango dute, irailaren 19an, 18:30ean. Aritz Ganboa de Miguel bera eta filmaren zuzendari Xabi Unanua bertan izango dira aurkezpena egiten. Pelikula eman eta gero, berbaldia eskainiko dute.



Aritz Ganboa de Miguel dokumentaleko irudi batean.

**Lanbide Heziketa**

**AZKEN PLAZAK!!**  
**LH - FP Matrikula zabalik**

94 616 90 02 info@leartik.eus www.leartik.eus

lea artibai ikastetxea  
MARKINA-XEMEIN

## Bidegorria egin dute Zubiondotik Zelaietako eskoletarako bidean

2021eko aurrekontu parte hartzaileetako partidan sartu dute ekimena; uztailean, Solozabal eta Abadeortu kaleetako bidegorriak ere egokitu zituen udalak



Bidegorria, margotuta.

### ABADIÑO • A.M.R

Ikasleen mugikortasuna errazteko asmoagaz hartu du Abadiño Udalak Zubiondotik eta Zelaietako eskoletarako bidean bidegorria egiteko erabakia. Gazteak bizikletaz edo patinetean "seguru" mugitzea bermatu ahal izatea da udalaren helburua. "Helburua bizikletan mugitzen direnen segurtasuna hobetzea da, eta baita eskolara doazen umeena ere. Gainera, bidegorri sarea indartzeko eta mugikortasun aktiboa bultzatzeko konpromisoa bete dugu", azaldu du Javier Crespo alkateordeak. Erabakia uztailean Solozabal eta Abadeortu kaleetako bidegorria egokitu eta gero heldu da, 2021eko aurrekontu parte hartzaileen ekimenaren barruan.

### Ikastetxeen garbiketa

Bestalde, ikasturte hasierarako garbiketa zerbitzua indartu duela adierazi du Abadiño Udalak. Horrela, Matienako institutuan, Traña-Matienako eta Zelaietako eskoletan eta Matienako eta Zelaietako haur-eskoletan indartu dute garbiketa zerbitzua.

## Zaborte giko erantzukizunak argitu arte lanean jarraituko dutela diote hainbat eragilek

Zaldibar Argitu, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta, Ekologistak Martxan eta Zero Zabor dira erakunde horiek

### ZALDIBAR • M.Z./J.G.

Zaldibarko hondakindegia kasuko akusatuek ez dutela kartzelara joan beharko ezagutzera eman zen joan zen astean. Erabaki horren aurrean, Zaldibar Argitu plataformak eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak ohar bateratu bat kaleratu dute. "Lehenengo eta behin, hildakoen familiei adierazi gura diogu adostasun batera heltzeko, familiaren erabakia guztiz errespetatzen eta ulertzen dugula", azaldu dute oharrean. Bestalde, "kasua aurrera eraman den modua"

salatu dute, baita "herritarren partaidetza eta egia ezagutzea oztopatzea" ere. "Zaldibarren gertaturikoa jakin eta erantzukizun guztiak argitu arte borrokan jarraituko dugu", esan dute.


Bestalde, Ekologistak Martxan eta Zero Zabor Bizkaia elkarguneak, prozesuan ingurumen-delituagaitik pertsonatutako akusazio partikular moduan, prozesuak aurrera jarrai dezala eskatu dute, inolako oztoporik eta "atzerapenik barik, eta erantzukizun politikoak argitu daitezela".



Zaldibar Argituk egindako elkarretaratzeko irudia.

**54** Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketa

**GARAI 2021**  
Irailak 18, 17:30ean



GARAIKO UDALA





# Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua  
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

**UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790  
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
ubide@euskalnet.net  
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

**ALDEKOA-OTALORA**  
ITURGINTZA - GASA  
BEROGINTZA - AIREA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com  
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA  
946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO  
944 071 791

Zurgintza

**ATERPE AROTZAK**  
EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

**JAIO**barnizatuak

Armairu eta era askotariko  
altzairuen lakadura eta  
guztietako zaharberritzeak  
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



## Asteburu honetan ere, Elorrioko sarrerak itxita egongo dira gauez

Joan zen asteko istiluen ondoren, Elorrioko Udalak hainbat neurri hartzea erabaki zuen



Irailaren 10ean eta 11n herriko sarrerak itxita egongo dira.

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen barikuan istiluak izan ziren Elorrion, eta, horren ostean, Elorrioko Udalak hainbat neurri hartzea erabaki zuen; tartean, herria trafikoarentzat ixtea gauez. Herria ez dute egunero ixten, asteburuetan bakarrik. Esaterako, gaur arratsaldetik bihar goizera arte egongo da itxita, eta berdin egongo dute bihar, irailaren 11n. Hori horrela, Elorrion bizilekua duten pertsonak eta sartu beharra egiaztatzen dutenek baino ezingo dutela sartu jakinarazi du udalak. Larrialdi, segurtasun nahiz udal zerbitzuetarako ibilgailuek ere sartu ahal izango dute.

Neurri hauek irailaren 4ko goizaldean gertaturiko istiluen harira hartu zituzten. Gertakari horietan sei gazte atxilotu zituz-

### Elorrioko Udalak hainbat ekintza antolatu du Kultur Zoparen barruan asteburu honetarako

ten, "desordena publikoa" eragitea egotzita. Elorrioko Udalak gertakari horiek "atsekabez" hartu zituen. Elorrioko GKS atxilotetako salatu zituen.

### Kultur zopako ekintzak

Elorrioko Udalak asteburu honetarako ere ekintza sorta antolatu du 2021eko Kultur Zoparen egitarauaren barruan.

Gaur, irailak 10, kontzertuak egongo dira Ganondo parkean. 19:30ean, Dupla eta Selektah 9mm talde ezagunak hasiko dira jotzen. Ordu berean, Lara Sagastizabalek eta Ana Sagastizabalek *Sí, fueron ellas. Un paseo por la historia del Teatro Musical* ikuskizuna eskainiko dute Arriola antzokian.

Biharamunean, Puro Relajo rantxera taldeak kontzertua eskainiko du Ganondo parkean, 19:30ean.

## Elorriar bati eginiko eraso sexista salatu dute asteon

Martitzen arratsaldean elkarretaratzea egin zuten Elorrioko plazan eraso salatzeko. Hainbat lagun batu zen



Herriko plazan egin zuten eraso salatzeko kontzentrazioa.

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Orain egun batzuk, Elorrioko emakume bati sexu eraso egin zioten herrian. Eraso hori salatuzeko, irailaren 7an, martitzena, hainbat herritarrek elkarretaratzea egin zuten herriko plazan Elorrioko Bilgune Feministak eta beste hainbat eragilek deituta.

Elorrioko Udalak eman zuen eraso horren berri, prentsa ohar baten bitartez, irailaren 1ean. Une horretan, udalak jardueraprotokoloa martxan ipini zuen eta modu koordinatuan lanean dabilzala jakinarazi zuten. "Azken eraso honek izugarri kezka-

tzen gaitu eta irmotasunez salatzen dugu. Gainera, erasotzaile orok jakin behar du emakumeenganako indarkeria mespretxa-

### "Ez dugu erasorik onartzen, ez gure herrian ez beste inon", esan dute Elorrioko Udaleko kideek

tzeaz gainera, ez dugula erasorik onartzen, ez gure herrian ez inon", adierazi zuten Elorrioko Udalaren bozeramaile batzordeko kideek.

## Bihar, Berrizen, ekitaldia eta lore eskaintza egingo dituzte fusilaturiko herritarrak omentzeko

Irailaren 11 gomuta eguna izaten da Berrizen. Aurtengo ekitaldiak udaletxe aurrean egingo dituztela jakinarazi dute

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Irailaren 11 gomuta eguna izaten da Berrizen, frankismoan hildako eta errepresaliatutako herritarrak omendu eta gogoratzeko eguna. 1936an, indar frankistek Felipe Urriaga, orduko alkatea, eta Jose Agirre, Gregorio Urkijo, Fermin Aranguren eta Agustin Milikua herritarrak fusilatu zituzten. Harrezkero, irailaren 11 lagun horiek eta orokorrean frankismoa sufritu zutenak omentzeko baliatzen dute.

Aurten ere biktima guztiak go-goan izango dituzte eta oroitzapen ekitaldia egingo dute. 12:00etan izango da, udaletxe aurrean. Ekitaldian, abesbatzak abestuko du eta dantzariak ere izango dira. Dantzarien ondoren, 13:15ean, memoria-aren bidean lore eskaintza egingo da.



2019an eginiko ekitaldiko argazkia.

## Irakurketa kluba antolatu dute emakumeentzat Atxondon

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko liburutegiak irakurketa kluba antolatu du emakumeentzat. Liburutegitik jakinarazi dutenez, taldera batzen diren emakume guztiak liburu bera irakurriko dute, eta gero, denen artean liburu hori komentatuko dute.

Lau saio antolatu dituzte irakurketa kluberako. Data hauek izango dira: irailaren 15ean, urriaren 20an, azaroaren 17an eta abenduaren 15ean. Saioak ordu eta erdikoak izango dira, 16:30etik 18:00etara.

Izena eman gura duten emakumeek 697 196 748 telefono zenbakira deitu edo [liburutegia@atxondo.eus](mailto:liburutegia@atxondo.eus) helbide elektronikora mezu bat idatzi beharko dute.





Hizkuntza Escuela Oficial  
Eskola Ofiziala de Idiomas

Hizkuntza eskolan?

Bai. Ikasi euskara

Ja. Lernen Sie Deutsch

Oui. Apprenez le français

Yes. Learn English

### Esperientzia handia

1994tik Durangon

### Hizkuntzak

Euskara, alemana, frantsesa  
eta ingelesa.

### Mailak

A1 - A2 - B1 - B2.1 - B2.2 - C1

### Orduak

Astean 4:30 ordu, egun bitan

### Titulu ofizialak

A2 - B1 - B2 - C1

### Prezioa

72,36 €  
ikasturte osoa

### Matrikula

ON-LINE

1. fasea: irailaren 1etik 17ra  
2. fasea: irailaren 17tik 30era

PRESENTZIALA

Urriaren 20an

### Talde erdipresentzialak – eskaintza

Alemana C1 - BERRIA  
Euskara B2.2 - BERRIA  
Euskara C1: 4 talde  
Ingelesa B2.2: 3 talde

[www.eoidurangoheo.hezkuntza.net](http://www.eoidurangoheo.hezkuntza.net)  
94 620 33 42 – 94 681 66 45



# Gaur azken eguna Bulego eta Kai Nakai ikusteko sarrerak eskuratzeko

Mañariko plazara askotariko ikuskizunak eraman dituen 'Kultura Sasoie' programa datorren asteko barikuan amaituko da Bulego taldearen eta Kai Nakai musikarien kontzertuagaz. Gaur da sarrerak eskuratzeko azken eguna



Bulego talde azkoitiarra.

**MAÑARIA** • J.D.

Bulegok eta Kai Nakaik irailaren 17an eskainiko dute kontzertua, Mañariko plazan; Azkoitiko taldeak 18:30ean igoko du eszenatokiara, eta Kai Nakai musikari gasteiz-tarraren txanda 20:15ean izango da. 120 lagunek jarraitu ahalko dituzte zuzenekoak bertatik bertara. Gaur da sarrerak eskuratzeko azken eguna (doakoa da) eta oraindino gutxi batzuk geratzen direla adierazi dute udaletik. Erreserbak

**120 lagunentzako tokia egongo da plazan, eta oraindino sarrera gutxi batzuk eskuragarri daude**

633 069 019 telefono zenbakira deituta (15:00etatik 19:00etara) edo whatsappera idatzita egin daitezke. Ekainetik hona, Kukai dantza taldea, Olatz Salvador musikaria eta Dupla musika taldea pasatu dira, besteak beste, Mañaritik Kultura Sasoie programaren barruan, eta denek harrera ona izan dute.



## Bertso saioagaz gozatzeko aukera hilaren 18an, Mañarian

Josu Sanjurjo, Eneko Fernandez, Erika Lagoma eta Eneko Abasolo 'Abarkas' arituko dira bertsoetan, plazan

**MAÑARIA** • J.D.

Nafarroako eta Bizkaiko bertso-lari txapelketen atarian, eurretan parte hartuko duten lau bertso-lari Mañariko plazan entzuteko aukera egongo da irailaren 18an, 19:00etan. Josu Sanjurjo eta Eneko Fernandez lesakarrak, Durangaldean bizi den Erika Lagoma lesakarra eta Eneko Abasolo 'Abarkas'

iurretara arituko dira bertsoetan. Ainhoa Urien abadiñarra izango da gai jartzailea. Fernandez eta Lagoma Nafarroako finelatan eta 'Abarkas' Bizkaikoan parte harturikoak dira. Txapelketa biak udazkenean lehiatuko dira.

Mañariko saioa bertatik bertara ikusteko sarrerak eskuragarri daude astelehenetik (633 069 019).

# Chill Mafia eta Ben Yart musikarien kontzertua Otxandioko Mekoleta auzoan

Iruñerriko euskal trap musika taldea 'Berpizkundea' biraren barruan etorriko da Otxandiora, zapatuan; sarrera bost euro da eta egunean bertan ere eskuratu daiteke

**OTXANDIO** • J.D.

Ekainean ezin izan zituzten Mekoletako jaiak ospatu COVIDaren eraginez. Ordurako pentsatuta zuten kontzertu bat irailean egingo dute antolatzaileek. Zapatu honetan, 19:00etan, Chill Mafia taldeak eta Ben Yart-ek zuzenekoak eskainiko dituzte Mekoletan, Arkotxe kultur elkartearen ondoan da-

goen landan. Arkotxe elkartearen, Otxandioko Gazte Asanbladaren

**Berez, ekainean egitekoan zen kontzertua, auzoko jaietan, baina atzeratu egin behar izan zuten**

eta udalaren artean antolatutako ekimena da. Kontzertuek aforo mugatua dute eta sarrerak aurretik eskuratu daitezke [administrazioa@otxandio.eus](mailto:administrazioa@otxandio.eus) helbide elektronikoa-ren bitartez, bost euroan. Sarrerak egunean bertan ere erosi ahalko dira aforoa bete arte. COVID arauak betez, musukoa ipinita eramatea derrigorrezkoa izango da.



Chill Mafiaren bideoklipiko fotograma bat.

## Izurtzako Mugarra elkarteak ehizarako paseen zozketak egingo ditu

**IZURTZA** • J.D.

Izurtzako eta Mañariko Mugarra ehiza eta arrantza elkarteak Saibigain-Iturriotz paseko letroko postuen zozketak egingo ditu Mañariko udalbatzar aretoan. Urriko baimenen zoz-

**Azaroko baimenen zozketarako eskaerak irailaren 23ra arte aurkeztu daitezke**

keta orokorra gaur izango da, 20:00etan, eta bazkideei bideratutako zozketa irailaren 14an, 19:00etan.

Azaroko baimenen zozketara eskaerak aurkezteko epea irailaren 23an amaituko da. Eskaerak Izurtzako Herriko Tabernan eta Antonio Txiki okindegian utzi edo batu daitezke. Zozketa orokorra irailaren 24an egingo dute, 20:00etan. Bazkideei bideratutako zozketa urriaren 19an izango da, 19:00etan.

## Euskara ikasten dabilzanentzat diru laguntzak eskuragarri Mallabian

**MALLABIA** • J.D.

2020-21 ikasturtean euskaltegietan nahiz homologatutako zentroetan euskara ikasten ibili diren herritarrek diru laguntzak jaso ditzakete. Eskaerak aurkezteko epea urriaren 31ra artekoa izango da, udaletxean. Gutxienez, klaseen %75era joan izana da laguntzak jaso ahal izateko baldintza bat eta hori egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da eskaera egiten denean.

**Gutxienez klaseen %75era joan izan da laguntzak jaso ahal izateko baldintza bat**

Hurrengo asteetan eskuragarri egongo den beste diru laguntza bat Mallabiko herri haurreskolan umeak dituzten familiei begirakoa da. 2020-21 ikasturteko laguntzak eskatzeko epea irailaren 30era arte egongo da zabalik.

# Larreko Haurreskolak eta Haur Hezkuntzako eraikinak itxuraberrituta hasiko dute ikasturtea

Haurreskolak atsedenerako eta elikagaiak prestatzeko gune berriak ditu. Haur Hezkuntzan komunak eraberritu dituzte

## ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak amaitutzat eman ditu Larreko Haurreskolak eta Haur Hezkuntzako eraikinean eginiko moldaketak. Haurreskola atsedenerako eta elikagaiak prestatzeko gune banagaz berrantolatu du. Batetik, koltxonetak, bainuontzia eta aldaketetarako baliagarriak diren altzariak ipini dituzte. Bestalde, elikagaiak prestatzeko gunea hozkailu bategaz, harraskagaz eta elikagaiak biltegi-ratzeko apal batzuekin hornituta egongo da aurrerantzean. Ere mu bi

horiek 0 eta 1 urte bitarteko gelek erabiliko dituzte. Haur Hezkuntzako eraikinaren kasuan, komunak eraberritu eta espazioa Hezkuntza Bereziko beharrezanetara egokitu dute. Gela bakoitzak bere berogailu eta leiho propioa izango ditu aurrerantzean. Espazioa armairu berriekin hornituta egongo da eta biltegi txiki bat ere izango du bere apal eta ateekin.

Udalak, guztira, 83.000 euroko inbertsioa egin du Haurreskolan, eta 160.000 eurokoa Haur Hezkuntzako instalazioetan.



Larrea eskolako irudi bat eraberritzearen ostean.

# 575 kilotik gora hondakin erretiratu dituzte Ibaizabal errekararen ibilgutik, Zornotzan

45 poltsa bete dituzte hondakinekin. Horrez gainera, bolumen handiagoko objektuak ere kendu dituzte



## ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak hainbat garbiketa lan egin ditu Ibaizabalen eta haren ibaiadarretan. 45 zabor poltsa bete dituzte ibaiaren ibilgutik erretiraturiko hondakinekin. Horrez gainera, supermerkatuko gurditxo bi, 3 palet, parkeko eserleku bat, esekitoki bat, arropaz beteriko maleta bat, botak, oinetakoak eta pertsiana bat ere erretiratu dituzte. Bestalde, udalak gaineratu du ibaiaren zati batzuetan sastrakak ere garbitu behar izan dituztela, bertan sartzea ezinezkoa zelako. Errekaren zati hauetan egin dituzte garbiketa-lanak: San Martin

urmalean, Bekoerrekan (Arrebiako eta txakurguneko eremuetan), Tantorta errekararen eremuan, eta Garitondori dagokion zatian, Ojenbarrena aldean.

## Lantegi Batuak

Lantegi Batuak Fundazioko lau behargin aritu dira lan horietan. Dena dela, Zornotzako Udalak aurreratu du aurrera begira beste jardunaldi bat antolatuko duela errika garbiketa herriko ikastetxeetako ikasleekin eta boluntarioekin egiteko. Bestalde, zornotzarrei gogorarazi die ibaietan eta ibaiertzetan hondakinik ez pilatzeko.



Euskadi, auzolana, bien común

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Lanbide

## Hasiera 2021ean!!!

| LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK                           |  |        |         |
|--|--|--------|---------|
| LANBIDE K.   | IKASTAROA  | ORDUAK | HASIERA |
| <b>GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK</b>                                     |  |        |         |
| OC21480072   | Higiene eta elikagai-arretako esku-hartzeak erakundeetan (MF1017_2)                          | 70     | Iraila  |
| OC21480023   | Arreta soziosanitarioko esku-hartzeak erakundeetan (MF1018_2)                                | 70     | Urria   |
| OC21480024   | Laguntza psikosoziala eta harreman eta komunikazio-arreta erakundeetan (MF1019_2)            | 130    | Azaroa  |
| OC21480069   | Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitaria ematea gizarte-erakundeetan (SSCS0208) | 370    | Urria   |
| <b>FABRIKAZIO MEKANIKOA</b>  |  |        |         |
| OC21480025   | Karbono-altzairuzko TIG soldadura (UF1626)   | 90     | Urria   |
| OC21480070   | Altzairu herdoilgaitzeko TIG soldadura (UF1627)  | 90     | Azaroa  |
| <b>PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK</b><br>Langabetuak (praktikak enpresan) |  |        |         |
| 21480020   | Ekipo industrialaren mantentze lanak eta muntaketa mekanikoa (IMAQ0108)                      | 510    | Urria   |
| 21480019   | Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitaria ematea gizarte-erakundeetan (SSCS0208) | 370    | Urria   |

Informazioa eta izen ematea:  
[www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus) (Prestakuntza, Kodea)

**OHARRA:** Taldeak sortu ahal, hasiko dira ikastaroak.



Urritxe auzunea, z/g · Tfno: 688 665 300 · 946 730 251  
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)  
e-mail: [maranburu@fpzornotza.com](mailto:maranburu@fpzornotza.com) · [www.fpzornotza.com](http://www.fpzornotza.com)



Joseba Barturen suhiltzaile durangarra uretatik irten eta gero.

## Joseba Barturenek ia 40 kiloko arraina arrantzatu du

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Ogella eta Lekeitio artean urpeko arrantza egiten zebilela, Joseba Barturenek pieza hau arrantzatu zuen martitzenean: 39,5 kiloko lantesa. "Ogellako haitzetatik itsasoan sartu eta kilometro bat igeri eginda arrain banku bat aurkitu nuen. Piezarik handiena arrantzatzea lortu nuen. Inoiz arrantzatu dudana arrainik handiena da", azaldu du Barturenek. Arrain erraldoia arrantzatzea eta Ogellara garraiatzea ez zen erronka makala izan. "Ordubete inguru aritu nintzen, arraina nekatu arte. Behin arrantzatuta, besoetan hartu eta ordubetez igeri egin nuen Ogellara heldu

arte", esan du Barturenek. Uretatik arraintzar horregaz irteterakoan, urpekariak zur eta lur utzi zuen hondartzan zegoen jendea.

Barturenek arrantza honi balio berezia eman dio. Izan ere, urpean erabilitako fusila Joseba Kerejeta-rena zen. "Kerejeta hil eta gero, bere emazteak haren fusila oparitu zidan. Hainbat txapelketatan erabili zuen", esan du. Horrela, 2016an hildako laguna urpean omentzeko modua aurkitu du Barturenek. Kerejeta urpekari eta suhiltzaile durangarra munduko txapeliduna izan zen urpeko arrantzan. Kirol Merituaren brontzezko domina eman zioten urte horretan bertan.

### Politikan

Neskutz Rodriguez Ormazabal  
Herriaren Eskubidea



### Jolas gaitzean

Uda honetan Otamotzena parke berria topaleku eta jolasgunea izan da durangar askorentzat. Nire balkoitik haurren barreak eta oihuak entzuten nituen, ur txorrotekin, tirolinarekin, naturan ondo integratutako txintxaun ezberdinetan jolasean. Jendea irakurtzen, berriketan eta berraren sentsazioaz gozaten ikusten nuen. Uda honetan, auzoa biziz bete da. Koloretako bizitza eta elkarbizitza uztartuz.

Hala ere, kolorezko eskaile-ra hau ez dago erabat irudikatuta. Jolasgune zabalak daude, baina ez gara jabetu mugikortasun, ikuspen eta abarreko arazoak dituzten haurrentzat egokitutako txintxaunak jartzeaz; izan ere, jolasaren bidez, gaitasun desberdinak dituzten haurrek elkarrekin jarduteko eta jolasteko aukera ematen da. Eta horrek hezkuntzan, inklusioan eta integrazioan eta elkarbizitzan laguntzen du.

### Ez genuen kontuan hartu gutxiengo horren beharra benetako parke inklusiboa egiteko

Erronka hori gainditu gabe utzi dugu, baina ez bakarrik Udal gobernutik, baita oposiziotik ere. Ez genuen kontuan hartu gutxiengo horren beharra benetako parke inklusiboa egiteko. Zorra daukagu Durangorekin, 2022rako utziko duguna. Beraz, erakunde modura erronka bat dugu: egungo parkeak egokitzea eta eraikiko diren berriak ikuspegi inklusibotik diseinatzea, eta guztiontzako parkeak sortzea. Denok jolasteko parkeak!

### Durangaldea asteen

#### Astelehenetik desagertuta dagoen 32 urteko gazte baten bila dabilta Elorrioren

**Elorrio** | 32 urteko gazte bat desagertuta dago astelehenetik Elorrioren. Eguaztenean ipini zuten martxan bilaketa dispositiboa. Edizio hau ixterako, gaztea bilatzen jarraitzen zuten. Ertzaintza, mendi erreskateko taldekoak, udaltzaingoa eta desagerturiko gizonetzakoaren familia dabilta gaztearen bila.

#### Bertso saioa egingo dute zapatuan, irailak 11, Zaldibarko Gaztetxean

**Zaldibarko** | Zapaturoko, irailak 11, bertso saioa antolatu dute Zaldibarko Gaztetxean. Durangaldeko bertso eskolak antolatu du eta Eli Pagolak, Oihana Iguaranek, Irune Basagoitik eta Aritz Katarainek abestuko dute. Olaia Milikua arituko da gai-jartzaile lanetan. Saioa 20:00etan hasiko da.

#### Emakumeen Jabekuntza Eskolak hainbat tailer antolatu du ikasturte berrirako

**Abadiño** | Abadiñoako Emakumeen Jabekuntza Eskolak dozena bat tailer eta prestakuntza jardunaldi antolatu du ikasturte berrirako. Alfabetatzea eta ahalduntzea, eskaladaren hastapenak, mindfulnessa, biodantza eta perkusio afrikarra dira, besteak beste, ikasturte berrirako proposamenetarikoz batzuk. Ikastaroetan izena eman gura dutenek irailaren 13tik 24ra bitartean egin beharko dute.



#### Txaber Altube bertsolari abadiñarrak Lizardi sariketaren 45. edizioa irabazi du

**Abadiño** | Txaber Altube abadiñarrak Lizardi saria irabazi du. Zarautzen jokatu zen saria, joan zen barikuan, irailak 3. Altubek hamar puntuko aldea atera zion bigarren sailkatuari, Sarai Robles barañandarrari.

Altubegaz eta Roblesegaz batera, Aitor Servier, Andoni Mujika, Aitor Zubikarai eta Ekhine Zapiain aritu ziren bertsoetan. Lizardi sariko bertso onenaren saria Andoni Mujikak irabazi zuen, kartzelan botatako bertso bategatik.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

**KURUTZIAGA ARTE EDERRETAKO AKADEMIA**

Irailean ikas ezazu margotzen!

**IKASTARO BEREZIAK!**  
Eskatu informazioa eragozpenik barik  
Tel.: 946 030 527 / 678 657 676  
[www.akurutziaga.com](http://www.akurutziaga.com)  
Kurutzia, 24 DURANGO



Helduentzako ikastaroak



Haurrentzako ikastaroak

**IK Iurreta kopistegia**

INPRESIO DIGITALA  
DISEINU GRAFIKOA

ESKOLA MATERIALEAN  
ESKAINITZA ZABALA

Bidebarrieta, 1 • 48215 IURRETA  
T: 946 811 070 • [info@iurretakopi.com](mailto:info@iurretakopi.com)



## LABIRINTOA

Zein da bide egokia irlatik irteteko?






# BIKIAK

Beheko jostailu hauek guztiek euren bikia daukate.  
Bazara gai denak topatzeko?



# ZEIN IZEN DUTE?

Letren labirintoari jarraituta, neska-mutil hauen izenak jakingo dituzu.





## Euskadiko Orkestra

MUSIKA **ELORRIO** :: Irailak 16

### Musika sinfonikoagaz gozatzeko aukera paregabea

Euskadiko Orkestra 1982an jaio zen. Musika ondare aberats lez hartu eta partekatzea du helburu. Hartara, orkestra ondare horren zaindaria da eta, era berean, ondare hori hedatzeko eta garatzeko konpromisoa hartu du. Estatuan erreferentea den talde sinfonikoa da, EAEn sendoki errotua. Urtean, batez beste,

7.000 abonatu eta 150.000 ikusle ditu. Bere garaiko orkestra da, oso exigentzia-maila handikoa, eta garai guztietako musika sinfonikoa hedatzeko konpromiso duena, arreta berezia eskainiz euskal musikaren sorkuntza eta hedatzeari. Elorrioko basilikan egongo da, irailaren 16an, 20:00etan.

### Irailaren 10ean

**BERRIZ antzerkia**  
**'Legea gu gara' (Barsanti konpainia)**, 18:30ean, Olakueta plazan.

**ELORRIO musika**  
**Dupla eta Selektah 9mm**, 19:30ean, Ganondo parkean.

**ELORRIO musika**  
**'Sí, fueron ellas. Un paseo por la historia del Teatro Musical' (Lara Sagastizabal & Ana Sagastizabal)**, 19:30ean, Arriola antzokian.

**ATXONDO hitzaldia**  
**'Zer egiten da psikomotrizitate sala batean?' (Hizlaria: Ianire Jaio psikomotrizista)**, 18:30etik 19:15era, Alboan psikogunean. Aurretik, 17:30etik 19:30era, ate irekiak. Ume zaintzako gune bat egingo da. Kontakua: 688 774 295 / alboan. psikogunea@gmail.com

**IZURTZA magoa**  
**'1,2,3... magia' (Sun Magoa)**, 19:00etan, plazan. Aforoa bete arte. Ez da behar sarrerarik hartzea.

### Irailaren 11n

**ELORRIO musika**  
**Puro Relajo**, 19:30ean, Ganondo parkean.

**ELORRIO hitzaldia**  
**'Zer dago homeopatiako bolita baten barruan?' (Hizlaria: Hanna Bruderer homeopata)**, 12:00etatik 12:45era, Alboan psikogunean. Aurretik, 10:30etik 13:00era, ate irekiak. Ume zaintzako gune bat egingo da. Kontakua: 688 774 295 / alboan. psikogunea@mail.com

**OTXANDIO musika**  
**Chill Mafia eta Ben Yart**, 19:00etan, Mekoleta auzoan. Lekua hartzeko, 94 545 00 20 telefono zenbakira deitu daiteke edo [administrazioa@otxandio.eus](mailto:administrazioa@otxandio.eus) helbidera idatzi.

**ZALDIBAR bertsoak**  
**Bertso Saioa: Eli Pagola, Oihana Iguaran, irune Basagoiti eta Araitz Katarain**, 20:00etan, Zaldibarko Gaztetxean. Gai jartzailea: Olaia Milikua.

**ZORNOTZA musika**  
**Faraj Suleiman**, 19:30ean, Boroako San Pedro basilizan. Eleizetan 2021 egitarauaren barruan.

### Irailaren 12an

**ZORNOTZA musika**  
**Vivo Hirukotea**, 19:00etan, Garaitondoko San Isidro basiliza. Eleizetan 2021 egitarauaren barruan.

### Irailaren 17an

**BERRIZ antzerkia**  
**'Nudó' (Rojo Telon)**, 18:30ean, Olakueta plazan.

**ELORRIO musika**  
**Girls Band**, 20:00etan, Arriola antzokian.

**MAÑARIA musika**  
**Bulego**, 18:30ean, plazan. **Kai Nakai**, 20:15ean, plazan. Aforoa bete arte. Gaur da lekua hartzeko azken eguna, 633 069 019 telefono zenbakira deituta.

### Irailaren 18an

**ELORRIO musika**  
**Sugoi eta Segundo Traste**, 20:00etan, Ganondo parkean.

**ZORNOTZA musika**  
**'La Guitarra Acompañada (Beethoven, Boccherini)' Bernardo Garcia Huidobroken eskutik**, 19:30ean, Bernagoitiko San Migel elizan. Eleizetan 2021 egitarauaren barruan.

### Irailaren 19an

**DURANGO txotxongiloak**  
**'Txotxongilo bertsolariak' (Toni La Sal eta Antzezkizuna Giñol taldea)**, 17:00etan, Aramotz auzoan.

**ZORNOTZA musika**  
**Vocalia**, 19:00etan, Etxanoko Andra Mari basilizan. Eleizetan 2021 egitarauaren barruan.

### Irailaren 24an

**ABADIÑO izena ematea Emakumeentzako Jabekuntza Eskolako ikastaro eta jardunaldiak**. Izena emateko, irailaren 24ra arte, Errota edo Txanporta Kultur Etxean. Abadiñoako Udalaren webgunean ere eman daiteke izena.

**IURRETA izena ematea Herri Bibliotekak antolaturiko ikastaroak**. Izena emateko, irailaren 24ra arte, bibliotekan, Herritarren Arretarako Zerbitzuan edo [bibliotekakoekintzak@iurreta.eus](mailto:bibliotekakoekintzak@iurreta.eus) helbidera idatzita.

### Irailaren 30era arte

**DURANGO erakusketa 'Hizkuntza indigenak Ama Lurra zaintzen'**. Astelehenetik barikura, 18:00etatik 20:00etara, San Agustin kulturgunean. Garabide elkarteak antolatuta.

## Zinema

### :: Durango ZUGAZA

• **Adiós, idiotas**  
barikua 10: 19:30  
zapateria 11: 18:00/22:00  
domeka 12: 18:00  
astelehena 13: 18:00/20:15  
martitzena 14: 18:00/20:15  
eguztzena 15: 18:00/20:15

• **Shang-Chi y la leyenda de los diez anillos**  
barikua 10: 19:00/22:00  
zapateria 11: 19:00/22:00  
domeka 12: 19:00  
astelehena 13: 20:15  
martitzena 14: 20:15  
eguztzena 15: 20:15

• **¿Quién es quién?**  
barikua 10: 19:30/22:00  
zapateria 11: 20:00/22:00  
domeka 12: 18:00/20:00  
astelehena 13: 18:00/20:15  
martitzena 14: 18:00/20:15  
eguztzena 15: 18:00/20:15

• **Chavalas**  
barikua 10: 22:00  
zapateria 11: 18:00/20:00  
domeka 12: 20:00  
astelehena 13: 18:00  
martitzena 14: 18:00  
eguztzena 15: 18:00

• **La patrulla canina**  
zapateria 11: 17:00  
domeka 12: 17:00

### :: Zornotza ARETOA

• **Nora**  
barikua 10: 19:30  
zapateria 11: 20:00  
domeka 12: 20:00  
astelehena 13: 20:00  
martitzena 14: 20:00



Martxan da udako argazki lehiaketa.  
**Igo zure argazkiak**  
irailaren 20ra arte

**UDA KO**  
**7. ARGAZKI**  
**LEHIAKETA**

 **anboto**



Durangaldeko 2020ko  
argazkia  
**IRABAZLEA**



Durangaldetik kanpoko  
2020ko argazkia  
**IRABAZLEA**

**2 KATEGORIA SARITUKO DIRA**  
**-ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA**  
**-DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA**

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK

  
informatika & telekomunikazioak

 **ERRIGORA**

  
Garaiko  
Landetxea

Informazio gehiago [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean

# Izaroren kontzertua eta Gorakadaren estreinu berria aurkeztu dituzte Durangoko Kultur Aro egitarauan udazkenerako

Aste honetan eginiko aurkezpenean, Durangoko hainbat kultur elkartek parte hartu dute; udalaren helburua egitarau "anitz" bat eskaintzea da



kontzertua Durangon, Landako gunean. Mikel Urdangarin zornotzarrek ere eskainiko du kontzertua, azaroaren 12an. Bestalde, Zugaza zineman rock musika eta zinea uztartzen dituen zikloa egingo dute. Hiru dokumental eskainiko dituzte: *Crack of gold*, *Oasis: supersonic* eta *Marley*.

Emanaldietarako sarrerak aldeztu aurretik erreserbatu edo erosi beharko dira. Doako ekitaldietarako, [www.durango.eus](http://www.durango.eus) atarian, Du-

**Irailaren 30era bitartean, Garabide elkartearen erakusketa egongo da ikusgai San Agustinen**

rango Kulturaz Blai aplikazioan edo Durangoko Arte eta Historia museoan eskuratu ahal izango dira.

## Garabideren erakusketa

Bestalde, irailaren 30era bitartean, Garabide elkarteak antolatutako *Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen* erakusketa egongo da ikusgai. Kooperazio linguistikoaren baliokak eta aukerak ere nabarmendu gura ditu Garabidek erakusketa-aren bitartez, eta baita bisitariak "isilarazitako herri indigenetara" hurbiltzea ere.

## KULTUR ARO • ARITZ MALDONADO

Gorakada antzerki taldearen estreinu berriagaz ekingo diote Durangoko Kultur Aro zikloari. *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* da antzerki taldeak estreinatuko duen lan berria. Emanaldi bikoitza

eskainiko dute San Agustinen, zapatuan eta domekan. Bietan 18:00etan izango da. *Las Dostoyevski* (Gurutze Beitia eta Maribel Salas), *Imbebible* (Txin txau kolektiboa) eta *Kasilda, bukatzen ez den sua* (Goitibera antzerki taldea) obrak ere

egongo dira ikusgai, besteak beste.

Antzerkiaren gainera, musika, zirkuko ikuskizunak, erakusketak eta tailerrak egongo Durangon udazkenean zehar. Besteak beste, Izaro abeslari mallabitarrak kontzertua eskainiko du. 2020ko urtarrilean

*Limones en invierno* diskoa kaleratu eta gero, aurkezpen betean harritu zuen COVID izurriteak Izaro; behartutako geldialdiaren ondoren, baina, abeslari mallabitarrak kontzertuak eskaintzeari ekin dio. Urriaren 30ean izango da Izaroren

Izaro.

# Faraj Suleiman palestinarren kontzertuagaz hasiko da Eleizetan jaialdia

Eleizetan ganbera musika jaialdia irailaren 11tik 26ra bitartean izango da; aurtengo zikloak sei kontzertu ditu

## MUSIKA • A.M.

Faraj Suleiman palestinarren kontzertuak emango dio hasiera Zornotzako Eleizetan ganbera musika jaialdiaren edizio berriari. Boroako San Pedro basilikan izango da Suleimanen kontzertua, 19:30ean. Asteburuko bigarren emanaldia Vivo hirukoteak eskainiko du. Bi horiez gainera, La guitarra acompañada, Vocalía, Patricia Kraus eta Kendra artistak arituko dira zuzenean. Sarrerak agortuta daude asteburu honetako ekitaldi

bietarako. Gainerako emanaldietarako sarrerak Zornotza aretoan bertan edo [zornotzaaretoa.eus](http://zornotzaaretoa.eus) webgunean eskuratu daitezke.

## Vivo hirukotea

Zikloko bigarren kontzertuko protagonistak Vivo hirukoteko kideak izango dira. Sara Vazquezek, Ana Estévezek eta Laura Juancok osatzen dute Vivo, eta Musikene Goi Mailako musika eskolako ikastetxe-ko ikasleak dira hirurak. 19:00etan hasiko da kontzertua.



Faraj Suleiman.



2020ko Durangoko Azoka bisitariarik barik.

## 56. Durangoko Azokak bisitariak edukiko ditu Landakon berriro ere

Durangoko Azoka abenduaren 3tik 8ra izango da; Internet bidezko dendari ere eutsiko diote

### DURANGOKO AZOKA • A.M.

56. Durangoko Azoka hibridoa izango da, Gerediaga elkartearen esanetan. Saltoki digitalari eutsiko diote, baina bisitariak ere izango ditu, "uneko osasun neurrien arabera" jende talde mugatueta. Beraz, Landako Gureko erakusmahaiak jendez inguratuta ikusiko ditugu berriro ere. "Sortzaile eta kulturzaileen arteko urteroko hartu-emanak berreskuratu gura ditugu", azaldu du Gerediagak ohar baten bitartez. Iaz dendak digitalean harrera ona izan zuela ikusita, Internet bidez-

**Durangoko Azoka hibridoa izango da; Internet bidezko dendari ere eutsiko dio Gerediagak**

**Sormen bekaren laugarren edizioan izena eman daiteke, irailaren 21era arte bitartean**

ko dendari eustea erabaki dute. "Parte hartzaileei salmentarako aukera gehiago eskainiko diegu horrela, eta bertaratu ezin diren kulturzaileei ere erosketa ahalbidetuko diegu", esan dute. Hain zuzen ere, Durangoko Azokan parte hartu gura duten argitaletxe, diskoetxe, ekoiztetxe, elkarte eta banatzaileek irailaren 19ra arte eman dezakete izena.

### Sormen Beka

Sormen Bekaren laugarren edizioan izena emateko epea ere zabalik dago, irailaren 21era arte.

## 'Jantzari' Filmin plataforman dago ikusgai gaurtik aurrera

Iurretako dantzariak, Bideografik ekoiztetxeak eta ANBOTOK elkarlanean landu dute dokumentala

### DANTZA • A.M.

'Jantzari' dokumentala ibilbide oparoa egiten dabil. Iaz Iurretan estreinatu eta gero, Euskal Herriko 27 aretotan proiektatu dute. Hurrengo emanaldiak Beran eta Zumarragan izango dira. Gaurtik aurrera, Filmin plataforman ere izango da. "Oso pozik gaude dokumentala izaten ari den zabalkundeagaz. Euskal Herri osoko aretoetatik eskaintzak heldu zaizkigu. Hainbat elkarte eta eragileren artean gai honen inguruan interesa dagoela sumatu dugu", azaldu du Jone Guenetxea ANBOToko zuzendariak.

Bestalde, dokumentalak Bilboko Cine Invisible jaialdian genero ekitatearen saria jaso zuen.

### Tradizioaren bilakaera

Dantza tradizionalen aldaketa handiak gertatu dira azken urteetan, generoaren ikuspuntutik. *Jantzari* dokumentalak garapen horren testigantza zuzena jasotzen du. Iurretako dantza taldearen kasua lantzeaz gainera, Durangaldeko taldeena ere jasotzen du. Dantzaren eta tradizioaren inguruan adituak diren hainbat lagunen gogoetak jasotzen ditu.



2019ko Urriena.

## Gai librean

### Sinbiosia

Zeinen beteak dauzkagun curriculumak. Marx, Luxemburg, Bookchin eta Federici irakurri ditugu. Militatu dugu eta teorizatu dugu. Eraiki gara *-ismorekin* bukatzen diren hainbat berbaren pilaketetatik abiatuta. Pankartak egin ditugu eta manifestan oihukatu dugu. Gure inguruko kritikak zorrotza egin dugu eta beldurra ere pasatu dugu gure printzipioak lehen lerroa eramatearren.

Zenbat borroka mundua eraldatzearren alde, espazio justuago baterantz hurbiltzeko, askatuko gaituen eremu baterantz. Ongizatea lehentasun izango duen sistema baterantz.

Zenbat aldiz galdu dugun burua eskematan eta albokoari begiratzea ahortzi. Hain humanista, hain militantea den inguru honetan, non hiruhilabetean behin bost elkar-zaintza ariketa egin eta txostena betetzen dugun,



Leire Vargas Nieto  
Sortzailea

**Zenbat aldiz galdu dugun burua eskematan eta albokoari begiratzea ahortzi**

**Era globalean pentsatzekotan, funtsezkoa da, lehenengo eta behin, kidea ulertzea**

zenbat elkarrizketa entzun ditugu gure bizimoduak eragiten dizkigun gazi-gozoen inguruan? Zenbat negoziaketa eraman ditugu aurrera bizilagunekin partekatzen ditugun espazioak sinbiosi-harremanetan oinarritzeko? Eta ez diot lantokian norbait berria sartzen denero

bilerara deitu behar denik bakoitzaren paperak baimentzen dituen zirrikituak zehazteko. Baina bai, denon artean moldekatzen ditugun espazioetan, eta nahi batetik abiatuta sortu ditugunetan bereziki, saiatu beharko ginatkeela gure hartuemanak parte-hartzaile guztien ongitasuna bermatuko duen oreka bat lortu eta mantentzerantz bideratzen. Familia, edo etxea, edo lagunartea ez direlako guda-zelai, edo ez luketelako hala beharko. Eta eguneroko ohiturak birpentsatzean eta, behar izanez gero, eraldatzean datzalako (sistema neoliberalak irakatsi dizkigun) jokabide indibidualistetatik ihes egiten saiatzea. Gure jokabide oro delako politikoa, erri-madun aldarriak eta ekimenak bezainbat, agerian edo ezkutuan egon, guk hala ikusi gura ala ez. Eta, era globalean pentsatzekotan, funtsezkoa delako, lehenengo eta behin, kidea ulertzen saiatzea.



**Silvia Trigueros  
Garrote**

**Mendi korrikalaria**

**ABADIÑO | 1976**

## “Tor des Geants probako errekorra hobetu dezakedala uste dut; horixe da ideia eta horretara noa”

Silvia Triguerosen bosgarrenez parte hartuko du Tor des Geants mendiko lasterketan. 2019tik berea den errekorra hobetu gura du aurten. Domeka goizean hasita, 350 kilometro egin eta 30 bat mila metroko desnibel positiboa gainditu beharko ditu helburua lortu duen ala ez jakiteko

**MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO**  
Azken hile eta erdian, lasterketa prestigiotsu bi irabazi ditu: Italiako Miglio Viso -168 kilometrokoa- uztail amaieran, eta L'Echappee Belle -150 kilometrokoa- abuztuan. Emaizta horiek sasoiaren dagoela erakusten dute eta bere proba kutunari itxaropentsu begiratzeke moduan dago.

### Zelan zaude erronkaren atarian?

Mota hauetako probetara beti dudekin joaten zara, baina sasoiaren eta gogotsu nago. Orain gutxi, beste proba bat egin dut Tor des Geants-erako prestaketa moduan eta ondo joan da. Analisiak egin berri ditut eta, nire ohiko kopuru baxuaren barruan, inoiz baino hematokrito kopuru handiagoa

dut. Konfiantza dositxoak dira. Buruak zeresan handia du.

**Lasterketa honetan, emakumeen errekorra zeurea da 2019tik: 85 ordu, 23 minutu eta 15 segundo. Hobetzea posible ikusten duzu?**

Bai, Tor des Geants-eko errekorra hobetu dezakedala uste dut; horixe da ideia eta horretara noa. Senarrak posible dela dio eta normalean asmatu egiten du.

### Baikor zaudete.

2019ko aldiko azken zatia hobetzeko modukoa izan zen. Hantak apur bat puztu zitzaizkidan, bastoia apurtu zitzaidan, birritan jausi nintzen... Hobetzeko tartea dagoela uste dut.

**Helburu anbiziotsuak jartzeak kirol maila hobetzen laguntzen dizu?**

Bai, laguntzen dit. Beti orduari

begira joaten naiz. Motibazio bat izaten da. Orain urte bi horrelaxe joan nintzen, etengabe erlojuari begira.

**Denborei askotan begiratzeak zertan laguntzen dizu?**

Nik ibilbidea zatika banatzen dut. Zati bakoitzari denbora bat ematen diot eta hori kontrolatzen joaten naiz. Ondo banago eta, gainera, tartetako denbora hobetzen banabil, ba horrek konfiantza plus bat ematen du. Probari bere osotasunean bakarrik begiratu bano, bere 85 orduetan, ez nuke irten ere egingo!

**Errekorra hobetzea zer faktoreen barruan dago?**

Faktore asko daude, baina, batez ere, meteorologia. 3.000 metrotik gorako mendietatik igarotzen gara eta eguraldia ordu gutxiaren barruan aldatu daiteke. Gertatu izan zait toki batetik ateratze gogorra eta helmugan lasterketako argazki batzuk ikustean toki bera elurtuta ikustea. Hotza ondo kudeatzea da beste faktore bat eta gauetan atsedean ondo hartzeko kapaz izatea.

**Egoera gogorretan lo egiten ikasi egiten da? Entrenatu daiteke?**

Nik ez dut entrenatu beharrik. Lo txarto egin ohi dut; beraz, suposatzen dut urte osoko entrenamendua dudala (barrez). Baina lehenengoz parte hartu nuenean kontrakoa gertatu zitzaidan. Lo gutxi egiten dudanez, ez nuela arazorik izango uste genuen, bai-

na ez dakit zer gertatu zitzaidan. Lo egin beharraz obsesionatu-edo egin nintzen, eta ezin nuen!

**Oso toki garaietatik igarotzen zaretela aipatu duzu. Oxigeno faltak eragiten dizu?**

Esango nuke alderdi hori ondo entrenatuta izaten dudala. Lehenengo aldi bietan, ibilbidean entrenatzen egon nintzen aurreko egunetan, eta egoerara moldatu nintzela suposatzen dut. Hurren-

**Gehien markatu nauen lasterketa da. Hirugarren parte-hartzean hasieratik markatuta nuen denbora hobetu nuenean hustasun bat sentitu nuen**

go aldi bietan Andorrako lasterketa batean parte hartu nuen aurretik eta oporrak ere han eman nituen. Aurten, ostera, L'Echappee Belle lasterketan parte hartu dut abuztu amaieran eta han ere 40 bat kilometro 2.000 metrotik gorako garaieran egin ditut.

**Esan izan duzu beharbada aurtengoa izango dela zure azkenengo parte hartzea Tor des Geants proban. Esandako horri eusten diozu?**

Tira, aho txikiagaz mantentzen dut. Kontua da Reunion irlako [Ozeano Indikoan, Madagaskarren ondoan] Diagonale des Fous proban parte hartzeko gogoia dudala orain urte batzuetatik

hona, eta urrian da. Datorren urtean proba hori egin gura dut eta Tor-era banoa ezingo nuke ondo prestatu. Baina Tor-era aurrerago ere bueltatu naiteke. Horregaitik diot aho txikiagaz esaten dudala.

**Aurten bosgarrenez parte hartuko duzu Tor des Geants proban eta 'Tor' dokumentala ere lasterketa horretako zure balentrien ingurukoa da. Zure proba kutuna da?**

Gehien markatu nauen lasterketa da. Hirugarren parte-hartzean, hasieratik markatuta neukan denbora, 90 ordu, hobetu nuenean, hustasun bat sentitu nuen. Eta orain zer? Pentsatu nuen. Hori sekula ez zitzaidan aurretik gertatu. Mendi lasterketarako ilusioa berreskuratzea kostatu egin zitzaidan.

**Abuztu amaieran L'Echappee Belle irabazi zenuen. Probari beldur handia zenioa zenioen sareetan. Zergaitik?**

Lagun batek esan zidan parte hartu eta ez zuela amaitu. Beste batek esan zidan oso gogorra zela. Bitartean, antolatzaileen gonbita jaso nuen parte hartzeko. Onartu egin nuen. Aste eta erdi lehenago joan nintzen, entrenatzeko, eta orduan beldurtu egin nintzen. Ordu asko behar ziren kilometroak egiteko. Dena bide harritsuak eta erlaxatzeko tartetxikiak ere ez. Zorionez, ondo joan zen eta irabazi egin nuen. Baina inoiz egin dudana lasterketarik gogorrenera irabazteko izan zen.



Unai Arizmendiarieta –10 zenbakiagaz, ezkerrean—Jon Lejardi zoriontzen, honek lehenengo gola sartu eta gero. **LUIS ITURRIOZ**

## Konfiantza dosi on bat, Hirugarren Mailari behar den moduan ekiteko

Jon Lejardi eta Unai Arizmendiarieta durangarrek sartu zituzten lehenengo garaipeneko golak

**FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO**

Durangoko Kulturala estu eta larri ibili zen iaz Hirugarren Mailari eusteko. Aurten ez dute halako trantzerik pasatu gura, eta, hasiera behintzat, itxaropentsua izan da. Joan zen asteburuan, 2-0 irabazi zion Beti Gazte talde igoberriari ligako estreinako partiduan.

Egia esan, Hirugarren Mailan lehenengoz dabilen talde nafarra ez da mailako talderik indartsuenetarikoa, eta ez zen aukera askoko partidua izan, baina, orokorrean, Jon Gonzalezen gizonak gehiago izan ziren joko aldetik, eta

merezita batu zituzten hiru puntuak. Konfiantza dosi bat izan zen taldeko jokalarientzat.

Esaterako, golegile bientzat. Biak durangarrak eta harrobian hezitakoak dira. Jon Lejardi Ondarroako Aurrera taldean ibili zen iaz, eta aurten bere betiko klubera bueltatu da. Estreinaldia zuen talde nagusiagaz, eta ederto aprobetxatu zituen minutuak. Ez bakarrik partiduko eta ligako lehenengo gola berea izan zelako, baita erasoko jokoan izan zuen parte-hartzeagaitik ere. Zaleen txalo artean utzi zuen zelaia 80. minutuan.

Unai Arizmendiarietak ere behar zuen gola. Iaz, denboraldi hasieran, birritan irten zitzaion sorbalda, eta azkenean ebakuntza egin behar izan zioten. Etapa hura ahaztu eta berri bati ekiteko, ez dago joan zen asteburuko gola baino hoberik: urrun-urrunetik baloiari zartako galanta emanda sartu zuen sare barrura. Azpimarratzekoa da Elorrio taldetik fitxatu duten Peio Tinocok ere azken hamar minutuak jokatu zituela.

Zapatuan, Kulturalak Baskoniarren kontra jokatu du, eta eguaztenean, Barakaldoren aurka.

## Eskualdeko ziklista gazteak Cafés Dromedario Flotamet talde berrian batu dituzte

Durungaldeko Bizikleta Eskola egituraren barruan egongo da eta kadete eta gazteek maillot berdinagaz lehiatuko dute



**TXIRRIDULARITZA • J.D.**

Eskualdeko txirrindularitzaren harrobian nobedadeak daude. Orain arte, kadeteak Elorrioko txirrindulari elkartearen ardurapean zeuden, Renault-Gaurisa taldean. Gazte mailakoak, ostera, Durangoko Duranguesa elkarteak entrenatzen zituen, Cafés La Tostadora taldean. Hori aldatu egingo da denboraldi berrian: denak Cafés Dromedario Flotamet talde berrian bateratu dituzte, Durungaldeko Bizikleta Eskola- ren barruan.

Aldaketak ez dio txirrindulari gazteen egunerokotasunari eragingo. Gehiago da egiturari uniformetasun eta kohe-

rentzia bat emateko ahalegina. “Ez zuen zentzurik bakoitzak bere babesleekin, bere maillotagaz... aritzeak. Batzuetan, jendeari kostatu egiten zitzaion taldeak identifikatzea. Sarritan izan dugu arazo hori. Orain, denak maillot berdinagaz arituko dira. Irudi aldetik, asko hobetuko da”, azaldu du Duranguesa elkarteko Josu Atxotegik.

Talde berriak babesle nagusi bi ditu: Cafés Dromedario eta Flotamet. Lehenengo ez da nobedadea; iazko Cafés La Tostadora da, baina beste izen batez. Elorrioko Flotamet enpresaren babesletza, ostera, berria da. “Zorte handia dugu eta pozik gaude”, dio Atxotegik.

## Jokaldia

### Eslovenia

Hogeita hamar urte bete dira independentzia aldarrikatu zuela; Jugoslaviari “hamar eguneko gerra” irabazi ostean. Azaleraz Euskal Herriaren tankerakoa da, 20.000 km<sup>2</sup>. Biztanleriari dagokionez, bi milioi pasatxo bizi dira, hemen baino milioi bat gutxiago. Neguko kirolak eta saskibaloia dira errege, baina azken urteetan ziklismoak eman dizkie poztasunik handienak esloveniarrei.

Ez da tradizioa duen herrialdea, baina azken boladan indartsu ari dira bertako ziklistak. Guztira, zazpi dira goi mailan edo World Tourrean ari direnak, eta bakarria bigarren mailan. Euskal herritarrek, ordea, hamaika dira. Gazteak eta eskarmentu handiko txirrindulariak ari dira lehian. Nabarmenenak, Pogacar, Roglic eta Mohoric. Lehenak bi Tour irabazi ditu jada, 22 urterekin, eta bigarrena hirugarren aldiz jarraian



Alfontso Arrojo Monasterio  
Kirol kazetaria

**"Denboraren poderioz nire kutunetako bat izatera iritsi da Primoz. Irabazten eta galtzen dakien kirolaria da"**

**"Urteekin izotz zati izateari utzi dio. Dagoeneko, irribarrea duela erakutsi du, eta baita umore ona ere"**

Vueltan gailendu da. 32 urte beteko ditu datorren hilean Roglak. Ezeren aurretik, kirolaria da eta hori etengabe erakusten du. Gauzak ondo zein oker joan, aurkariarekiko errespetua agertu eta kiroltasunez onartzen du porrota. Unai Iturriagak idatzi, eta Rafa Ruedak Maddi Oihenartekin batera abesten duen *Jira eta bira* kantuarekin sarritan gogoratu naiz Roglic aurrez-aurre ikusi

dudan bakoitzean. Psikologikoki indartsua behar du gizonak amore ez emateko. Iazko Tourra galdu zuen moduan galduta, eta aurten eroriaren ondoren, beste edonork lur jota amaituko zukeen. Ez aldiz Roglak. Jausi eta altxatu. Urteekin izotz zati izateari utzi dio eta jendearengana dezente gerturatu da. Dagoeneko, irribarrea duela erakutsi du, baita umore ona ere. Lasterketetan erasokorrako ageri da orain, baina denak errespetatzen ditu. Pelotoiak estimuan dauka esloveniarra. Bere palmaresaren laurdena ere ez duten askok eta askok eredu moduan hartu beharko lukete azken urteetako ziklistariek erregularrena. Denboraren poderioz nire kutunetako bat izatera iritsi da Primoz. Irabazten eta galtzen dakien kirolaria eta pertsona delako: “eta erortzean berriro jaiki, behin eta berriro, astiro-astiro...”



**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com



**DURANGO**  
**MADALENA:** 132 m<sup>2</sup>. 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara eta trasteleku / bodega. Garajea.  
**286.000€ C.E.E=F**



**DURANGO**  
**DURANGO:** Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Argitsua. 2 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Igogailua. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan.  
**140.000€ C.E.E=F** negoziagarria



**IURRETA**  
**IURRETA:** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 15 m<sup>2</sup>-ko trasteleku. Parking pribatua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan.  
**160.000 € C.E.E= F**



**DURANGO**  
**EZKURDI:** 175 m<sup>2</sup>. 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran.  
**325.000 € C.E.E=F**



**DURANGO**  
**JESUITAK:** 3 logela, komuna, sukalde eta egongela handiak. Erdialdean. Ganbara. Eguzkitsua.  
**206.000 € C.E.E=G**



**DURANGO**  
**F. J. ZUMARRAGA:** 90 m<sup>2</sup>. 3 logela, komuna, sukalde handia terrazarekin. Eguzkitsua.  
**195.500 € C.E.E=E**

### // ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

**DURANGO:** Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.

**DURANGO:** Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

### MAÑARIA

**KIRIKIÑO KALEA:** 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.

### ABADIÑO

**ETXEAZPIA KALEA:** Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

### BERRIZ

**ELIZONDO ETXETALDEA:** Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

### //LURSAILAK SALGAI

**DURANGO:** 2.020 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

**GAZTELUA:** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

### //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ATXONDO:** AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria.

**ELORRIO:** Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitzeko. 10.000 m<sup>2</sup>. Ikuspegi izugarriak.

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MAÑARIA:** Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

**ELORRIO:** Aldape auzoa. Baserria, berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO:** Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

### //BULEGOAK ALOKAIRUAN

#### ABADIÑO

30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

### //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

### //LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

### //LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIRUAN

**IURRETA:** Arriandi. 3.036m<sup>2</sup>-ko lokala alokairuan. Aldagelak, komuna eta 5 tonako zubi garabiagaz.

### //LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

**MATIENA:** 460 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

### www.inmoduranguesado.com



**DURANGO** 133 m<sup>2</sup>  
4 logela  
**EZKURDI:** 133 m<sup>2</sup>. Hall-a, egongela, sukaldea, 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. (hegoalde / iparralde) ALTUA. ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. AUKERA ASKOREKIN. Igogailua. Garaje itxia + 35.000 € (eta / edo) garajea + 26.000 €. C.E.E:E.  
**330.000 € C.E.E:E**



**MATIENA** 3 logela  
**TRAÑABARREN HIRIBIDEA:** 65 m<sup>2</sup>. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (mendebalde) ALTUA. ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. 8 m<sup>2</sup>-ko ganbara. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.  
**175.000 € C.E.E:E**



**ZALDIBAR** 2 Logela  
84 m<sup>2</sup>  
**EUSKAL HERRIA:** 10 urteko antzinatasuna. 84 m<sup>2</sup>. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (ipar-ekialdea / hego-mendebalde) Argitsua. EZIN HOBEA. 18 m<sup>2</sup>-ko garaje itxia. Leku onean kokatua.  
**219.000€ C.E.E:E**



**DURANGO** 79 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**IPARAGIRRE:** 79 m<sup>2</sup>. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta despentsa. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (mendebalde) ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. Garajea. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.  
**245.000 € C.E.E:E** negoziagarria



**ABADIÑO** 2 Logela  
**ITURRITXO:** 16 urteko antzinatasuna. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (Hegoalde) Igogailua. Ezin hobea. 14,05 m<sup>2</sup>-ko garajea, 4,63 m<sup>2</sup>-ko trasteleku eta 11 m<sup>2</sup>-ko ganbara barne. Leku onean.  
**200.000€ C.E.E: E**



**DURANGO** 185 m<sup>2</sup>  
**MATADERO:** : 185 m<sup>2</sup>-ko (erabilgarriak) pabilioia. Beheko solairuak 125 m<sup>2</sup> ditu eta solairuak 60 m<sup>2</sup> (bulegoa, komunak...). Oso leku onean, herriko sarrera-irteera batetik oso gertu. Sarbiderako atea oso zabala. Oinezkoentzako eta ibilgailuentzako sarbidea.  
**260.000 € C.E.E: G**



HAUXE BAI JENEROAI!

KIROLA EDOZEIN DELA ERE, BERDINTASUNAREN ALDE

ARRAUN!

@garbineubeda

Eskelak jartzeko: 946 816 558  
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak  
· Anboto paperean + anboto.org-n: 100€  
(Anboto txartela dutenentzat 90€)  
· Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)  
· Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU**  
**GOZOTEGI-OKINDEGIA**  
Ermodo, 11 DURANGO /  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Botikak

|  |  |
|--|--|
| <b>BARIKUA, 10 · 09:00-09:00</b>                                 | <b>DOMEKA, 12 · 09:00-09:00</b>                                  |
| <b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - DURANGO                             | <b>SARRIA</b> Sasikoa 17, DURANGO                                |
| <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA           | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA           |
| <b>09:00-22:00</b>   | <b>ASTELEHENA 13 · 09:00-09:00</b>                               |
| <b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO | <b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - DURANGO                      |
| <b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - ZORNOTZA             | <b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - ZORNOTZA             |
| <b>ZAPATUA, 11 · 09:00-09:00</b>                                 | <b>09:00-22:00</b>   |
| <b>ETXEBARRIA</b> Montevideo etorb. 2 - DURANGO                  | <b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO |
| <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA           | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA           |
| <b>09:00-13:30</b>   | <b>MARTITZENA, 14 · 09:00-09:00</b>                              |
| <b>GAZTELUMENDI</b> J.A. Abasolo 2 - DURANGO                     | <b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - DURANGO                   |
| <b>SARRIA</b> Sasikoa 17, DURANGO                                | <b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - ZORNOTZA             |
| <b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22. - DURANGO                         | <b>09:00-22:00</b>   |
| <b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - DURANGO                             | <b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO |
| <b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - DURANGO                      | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA           |
| <b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - DURANGO                   | <b>EGUAZTENA, 15 09:00-09:00</b>                                 |
| <b>BAZAN DIAZ</b> Urbarri 5 - DURANGO                            | <b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - DURANGO                             |
| <b>LARRAÑAGA-BALENTZIAGA</b> Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO            | <b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - ZORNOTZA             |
| <b>LOPEZ DE ARETXAGA</b> Torresolo 4 - ABADIÑO                   | <b>09:00-22:00</b>   |
| <b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - ZORNOTZA             | <b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO |
| <b>GOIRIA, MARI CARMEN</b> Sabino Arana 6 - ZORNOTZA             | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA           |
| <b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA                 | <b>EGUENA, 16 · 09:00-09:00</b>                                  |
| <b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - ZORNOTZA                 | <b>ETXEBARRIA</b> Montevideo etorb. 2. - DURANGO                 |
| <b>09:00-14:00</b>   | <b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - ZORNOTZA             |
| <b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - IURRETA                     | <b>09:00-22:00</b>   |
| <b>09:00-22:00</b>   | <b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO |
| <b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA           |

Irailaren 4an **Ekainen** urtebetetze eguna da. Mutil handi! Mosu potolo bat!

“Txantxibiri, txantxibiri...” abestuz irailaren 5ean Zelean amaman 101 urteak ospatu genduzan. Zorixonak etxeko danon partez, amama **Lo-ren!** Osasunaz jarraitu deizule.

Abuztuaren 30ean **Natalik** 8 urte egin ebazan. Zorixonak, laztana!

Abuztuaren 16an **Lierrek** 7 urte egin zituen, zorixonak laztana! Jarraitu hain jatorra eta alai izaten. Muxu handi bat danon partez, bereziki Noran partez. Maitte zaittugu.

Irailaren 6an Oromiñoko **Karmelo Iriondok** urteiek egin dauz. Zorixonak, aittitte! Besarkada handi bat!

Zorionak, aita! Mosu handi-handi bat etxeko danon partez!

Uztailaren 27an **Asier Vallejok** 12 urte egin zituen, irailaren 12an **Iker** bere anaiak 14 urte egingo ditu. Zorixonak eta musu handi bat etxeko guztien partez.

Zorionak, **Ibai!** Irailaren 16an 8 urte egiten dituelako etxeko mutiko handiak, muxu potolo bat familia osoaren partez, paaa!

Zorionak, amatxo **Alaz!** 28xek ezin die ospatu barik gelditu eh! Mosutxo handi-handi bat!

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

|  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|
| <br><b>NESKAMEAREN IPUINA</b><br>Margaret Atwood<br>(Txalaparta) | <br><b>ERLE LANGILEEN AMODIOAK</b><br>Aleksandra Kollontai<br>(Erein & Igela) | <br><b>ERBESTEKO GUTUNAK</b><br>Victor Hugori<br>Louise Michel<br>(Katakarak) | <br><b>BOST EGUN, BOST GAU</b><br>Manuel Tiago<br>(Katakarak) | <br><b>SOLASALDIA SIZILIAN</b><br>Elio Vittorini<br>(Igela) |
|--|--|--|--|--|

# “Pandemiaren aurretiko bisita kopurua hirukoiztu dugu”

Ikasturte latza igaro eta gero, udan geratu barik egon dira Hontza Museoa. Aurretik hitzordua hartuta bisitatu daiteke 45.000 aletik gora batzen dituen natur zientzien museoa



**Leire Huerta Ortuoste**  
DURANGO | 1978

**Enrike Huerta Carreto**  
DURANGO | 1948

Hontza Museoa

**MAÑARIA** • AITZIBER BASAURI

‘Kirikiño’ idazlearena izandako etxean du aterpe Hontza Museoa. Zazpi urte dira gaztetatik amestutako natur zientzien museoa zabaldu zuela Enrike Huertak, familia osoaren inplikazioagaz. Hala ere, ametsa osorik bete dadin borrokan jarraitzen du Hontza Museoaren Fundazioaren presidentea, museoa Durangon behar lukeela uste duelako. Leire alaba du bidelagun, museoko zuzendari lez.

**Udari azken astindua ematen gabiltzan honetan, zelan joan da bisitari kopurua?**

**Leire Huerta:** Oso pozik gaude. Pandemiaren aurretiko bisita kopurua hirukoiztu dugu. Ez du

eguraldi ona egin hondartzara edo mendira joateko, eta jendea animatu egin da hona etortzera, plan alternatiboak egin dituzte. Durangaldetik etorri dira batez ere, baina Euskal Herriko beste hainbat tokitatik ere bai, eta Bartzelona, Madril, Errioxa edo Valentziatik. Iazko ikasturtea oso txarra izan zen. Eten izugarria gertatu zen. Ea aurten egoera malgutzen den. Eskolekin hartu-eman berreskuratzea dugu orain erronka.

**Enrike:** Museoa helburu didaktikoa eta zientifikoa izan du beti. Arlo zientifikoan, hezkuntza-zentroen osagarri izan daiteke.

**Ikasturte honetan gela berri bi zabaltea ere baduzue erronka.**

**Leire:** Bai, hegaztei eta narrastiei eskainitakoak. Zirkuitua itxiko genuke, bisita zirkularra eskainiz.

**“Ez du eguraldi ona egin mendira edo hondartzara joateko, eta jendea animatu egin da hona etortzera”**

**Zerk erakartzen du gehien bisitaria?**

**Leire:** Karrantarro erraldoiak, hartzak, jirafak, albatrosak... zientifikoki balio handiagoa izan dezaketen arren ale txikiagoak.

**Mundu osoko animaliak ikusi daitezke museoa. Zein da bitxiena?**

**Enrike:** Ehun urtetik gora dituen Australiako ornitorrinkoa. Munduko animaliarik bitxiena da. Arrautzak erruten dituen ugaztuna da, ahatearen mokoa du, kastorearen buztana, eta igarabaren gorputza eta hankak ditu. Arrak ezproi pozitsu bi ditu eta kumeek amaren poroetatik isuritako esnea miazkatzten dute. Hartz-inurrijale nanoa ere badugu, baina ez dago ikusgai.

**Hiru hamarkada igaro dira proiektua jaio zenetik. Zure umetako ametsa izan da, Enrike.**

**Enrike:** Bai. 12 urtegez Donostiako Akuariamera joan nintzen gurasoekin, eta pentsatu nuen Durangaldean natur zientzien museo bat sortu behar zela. Orduan hasi nintzen aleak batu eta gordetzen. Gaur arte. Museoa 1.500 ale daude ikusgai, baina 45.000tik gora ditugu gordeta; eta handituz doan kopurua da. Museoa 1987an zabaldu genuen lehenengoz, Mañariko beste eraikin batean. Hiru urte egon zen zabalik.

**“Ehun urtetik gora dituen Australiako ornitorrinkoa dago museoa; munduko animaliarik bitxiena da. Arrautzak erruten dituen ugaztuna da”**

**Familia proiektua da Hontza Museoa.**

**Leire:** Ez da beste aukerarik egon, eta aurrera egin dugu. Bestela, kaxetan gordeta ustelduko zen dena.

**Enrike:** Euskal Herrirako natur zientzien museoa sortzea izan da gure desioa; Durangon, jakina. Durangarra naiz eta hori lortzeko borrokatu naiz beti. Eta jarraitzen dut.

**Nondik batu dituzu ale horiek guztiak?**

**Enrike:** Umetan zoro-zoroan hasi nintzen arren, gero ikasten, aztertzen eta bidaiatzen hasi nintzen. 150 museotik gora bisitatu ditut, hainbat kide, lagun eta elkartruke egiteko bidea zabalduz. Nik batutakoak dira asko, eta beste piloak donazioak, moja edo fraideen ikastetxeek edo norbanakoek emandakoak.

**Zein da eduki gura zenuketen ale hori?**

**Enrike:** Asko falta dira, baina, kezka bat eduki gura nuke.

**Lau-hortza**

Markel Onaindia  
Txabarri  
Kazetaria



**Istiluak**

Asteon hil da Michael K. Williams, Chalky White (Boardwalk Empire) eta Omar Little (The Wire) ahaztezinak gorputzu zituen aktorea. Ni ere bere klanekoa nintzen Atlantic Cityn, bere bandakoa Baltimorean. Arima beltza, errebeldia. Akordatu naiz Omar Littlek Baltimoreko kale ilunetan bere eskopetaz eta txistua jotzen agertzen ziren bakoitzean sortzen zidan zirraraz. Asteon zerbait akatu du Omarrek nire barnean.

Gogoratu naiz Baltimoreko banden arteko borroketan, polizia agertzen zenean sortzen ziren istiluez. Eta, hedabideei erreparatuta, badirudi gu ere azkenaldian hantxe bizi garela. "Elorrioren sei gazte atxilotu ditu bart gauz Ertzaintzak, desordena publikoa egotzita", zioen irratiaren lehen titularrak zapatu goizean. Botelloia egiten ari omen ziren gazteak, eta polizia agertzean hasi ei ziren istiluak. Beraz, norik piztu zituen istiluak? Esan behar dut zaintzearen eta txertoaren alde nagoela. Baina, nire ustez ez du zentzurik egunez terrazetan lasai egin daitekeena gauz aire librean ezin egin izateak. Are gutxiago polizia bidaltzeak. Ni ere, segurutzat hantxe nengoke, oraintxe hoge urte banitu.

"Bingen Zupiriak Elorrioko istiluak salatu ditu, eta uste du antolatutako zerbaiten aurrean egon gaitzkeela", zioen domekan irratiak. Hara, falta zena. Eta, pentsatu dut, ez ote den guztia aurrez idatzitako gidoi bat, telesail baten erakoa, pandemiaren gestioan, Zaldibarko zabortegean zein Osakidetzako oposaketetan duten arduraz barbarik egin ez dadin.

Durangaldean gremioekin,  
zerikusia duen negozioirik baduzu,

**JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON**

Informazio gehiago 94 621 79 02 telefono zenbakian

